


Aire kontrolatzaileak



ODD ANDERSEN / EPA

Rafael Cruz

USCAko idazkaria

«Kasu batzuetan aire espazio militarra erabili dezakegu»

ION ARANBURU

Kontrolatzaileen lanak zer esan handia eman du azken egunotan. Beraien iritzia jakin nahian USCA Espainiako Aire kontrolatzaileen sindikatuko idazkariarekin hitzegi dugu.

Noiz egoten da hegazkin trafiko gehien?

Espainia eta European udaran trafiko gehiago egoten da, oporrak direlako. Asteko egunetan berriz asko aldatzen da aireportuaren arabera.

Hegazkin batek ezin badu lur hartu zer, gertatzen da?

Airean toki konkretu batean mantentzeko agindu zehatz batzuk ematen zaizkie, lur har dezaketen arte. Askotan zeruan biraka ibiltzen dira pista libre duten arte. Batzutan baldintza klimatologikoengatik eta, ezin izaten dute lur hartu eta orduan desbideratu egiten dira. Desbideraketa hori he-

gazkin konpainiak erabakitzen du eta baita zein aireportutan lur hartuko duen.

Nola jakiten dute nork kontrolatzen duen hegazkin bat?

Mendebaldean bidaiarien hegazkinak beti kontrolatuak egoten dira. Kontrolatzaile batetik bestera igarotzerakoan irrati frekuentzia baten bidez deitzen dute eta hegazkina pasatzen diete esplikatuaz zer nolako baldintzatan dagoen hegazkin hori. Kontrolatzaile batek eremu jakin bat kontrolatzen du. Salbuespen kasuetan kontrolatzaile militar batek eta zibil batek ere kontrola ditzazkete.

Dagoen trafikorako nahiko aire espazio al dago?

Aire espazio militarra ere kontuan hartu behar da. Izan ere, hauek beraien espazio propioa dute. Aire espazio hori ez dago erabilpen etengabea eta kasu batzuetan espazioa desaprobatzen ari garela pentsa daiteke. Kasu batzuetan aire espazio militarra ere erabili dezakegu beraiek bai-

mentzen badute. Hori ez da batere erraza gertatzen denok ohitu garelako aire espazioa modu konkretu batean erabil-tzen. Aldaketa asko gertatzea ez da ona izaten. Baina, aurr-kusten da aire espazio militarren erabilpena kasu batzue-tan. Arazoa kontrolatzaileen sistemetan datza. Izan ere, Sis-temek bere gain hartu dezaketena baino gehiago hazi da ai-re trafikoa.

Aire espazio militarrek toki asko kentzen dio aire espazio zibilari?

Aire espazioa kentzen du. Esparru konkretu batzutan ezin da sekula sartu eta beste batzutan aldiz baldintza ja-kin batzuetan bakarrik. Ezingo nuke esan espazio nahikoa edo gutxiegi dagoen. Dena den, galdera honen erantzuna aldatu egiten da segun eta nori galdetzen zaion. Kontrola-tzaile militar bati galdetzen bazaio espazio gutxiegi duela esango du.

barrutitan banatua dago, eta hauek aldi berean espazio jakin batzuetan banatzen dira. Espazio horiek hainbat kontrol gunetan banatuta daude. Banaketa hori OACI elkarteak egiten du, eta honek definitzen du elkarteko estatu bakoitzaren aire espazioa zein izango den. Horretaz gain, nazioarte-ko aire espazioa eta subiranotasun espazioa ere zein izango diren defini-tzen du.

Estatu bakoitzak bere aire espazioa hegan egiteko hainbat informazio ere-mutan banatzen du, eta eramu bakoit-zean kontrol area bat dago. Kontrol area hauek ere banatu egiten dituzte,

eta hemendik ateratako eremu bakoit-tza kontrolatzaile bati dagokio. Lan banaketa horrek koordinazio handia eskatzen du, eta akatsen bat gertazen bada, ondorioak larriak izan daitezke.

Aireko espazioa bi barruti nagusi-tan banatzen da. Alde batetik, aire espazio kontrolatua; eta bestetik, aire

espazio ez kontrolatua. Azken hone-tan, informazio eta alerta zerbitzuak bakarrik eskaintzen dituzte. Aldiz, barruti kontrolatua bi gunetan bana-tzen da. Alde batetik, goiko kontrol area; eta bestalde, beheko kontrol area. Beheko kontrol areak 300 metroko altuera du, eta area honetan lur hartzen dute hegazkinek. Goiko kontrol arean, aldiz, hegazkinen ger-turatze eta bidaiatzeko gunea dago. Bi area hauetan kokatzen dira aerobiak, hegazkinen autopistak. Goiko arean karril nagusia; eta behekoan, berriz autopisten irteerak daude.

Hegazkinen autopista hauek ibilbi-

de finkoak dituzte, baina gerrateak daudenean, aldaketak izaten dituzte, hegazkin militarrei tokia uzteko. Hegazkin hauek badute beren aire espazioa, eta beren bideak, baina batzuetan espazio zibiletik igaro behar izaten dute, beren lana betetze-ko. Orduan, korridore moduko batzuk irekitzen dituzte hegazkin militarrek igaro ahal izateko.

Hegazkin militarren kontrola ez da aireportuetako kontrol dorreen kon-tua izaten. Hauek hegazkin zibilak bakarrik kontrolatzen dituzte, milita-rrek beren aireportuak eta kontrola-tzaileak izaten dituzte.

Estatu bakoitzak bere aire espazioa hegan egiteko hainbat informazioa eremutan banatzen du

